

Bestelako Agintza eta Erabakiak Otras Disposiciones y Acuerdos

LAN, OSASUNKETA ETA GIZARTESEGURANTZA-SAILA

Lan, Osasunketa eta Gizartesezurantz Sailburu Jaun Txit Gorenaren 1986.eko Martxoaren 19ko ERABAKIA, Osasunketarako Lazkaoko Zentruari administratibo-osasunketa baimena emanez. 2035

INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-SAILA *Euskadiko Prezioetarako Batzordea*

Industria eta Merkataritza-Administrazioarako Sailordetzaren ERABAKIA, Euskadiko Prezioetarako Batzordeak 1985.eko Abenduaren 26an hartutako Akordioaren aurka sartu den Gora-Jotzearen erabakia argitaratuz. 2036

DEPARTAMENTO DE TRABAJO, SANIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL

RESOLUCION de 19 de Marzo de 1986 del Excmo. Sr. Consejero de Trabajo, Sanidad y Seguridad Social sobre concesión de autorización administrativo sanitaria de funcionamiento al Centro de Salud de Lazkao. 2035

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y COMERCIO *Comisión de Precios de Euskadi*

RESOLUCION de la Viceconsejería de Administración de Industria y Comercio por la que se publica la Resolución del Recurso de Alzada interpuesto por la Clínica Maternal Nuestra Señora de la Esperanza, S.A., contra acuerdo de la Comisión de Precios de Euskadi de fecha 26 de diciembre de 1985. 2036

Iragarpenak Anuncios

DONOSTIAKO UDALA

IRAGARPENA, «Barne Erregormako Plan Berezia Miracruz-ko zona 10^oean, José Elosegi Alkatearen Hiribidearen aurreko hirigune arearako» proiektuari buruzkoa, Vicente Olano de la Lama eta José Manuel Ibarгойen Cancio Arkitektoek eta Maite Iribarren Abogatu andreak redaktatua. 2037

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIAN

ANUNCIO relativo al Proyecto «Plan Especial de Reforma Interior para el área de casco urbano frente a la Avenida Alcalde José Elosegui, en la zona 10^o - Miracruz», redactado por los Arquitectos D. Vicente Olano y D. José Manuel Ibarгойen y por la Licencia en Derecho Dña. Maite Iribarre. 2037

Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA ETA ZUZENTZA SAILA ETA LURRALDE ANTOLAKETA ETA AGARRAIO SAILA

827

Martxoaren 11ko 80/1986 DEKRETOA, «Lurralde eta Hiri Antolaketarako Euskal Eskola-Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos» delakoaren Sortarazketa, Funtzionamendu eta Eraketari buruzkoa.

Euskal Gizartearen eremu barruan lurralde eta hiri antolaketaren garrantzia, aspaldidanik, inolako zalantzarik gabeko realitate bat da eta horretaz ez dago ezer gehitu beharrik. Ingurua, bai urbanoa eta bai rurala ere, hobetu beharra lehen mailako helburu bat da eta gizarte osoa horretaz jabetuta dago. Hau bera, berez, nahiko arrazoi litzateke, arlo hau zientifikoki sakontzeko beharrezko diren neurriak hartzea eta ezagupen egoiak izan ditzaten profesionalak, behar hainbateko kopuruz, gertatzera herri agintariak bultzatzeko, horrela, Autonomia Elkarte Administrazio maila guztietan somatzen den ingurugiroaren hobekuntza helburuak indartze eta lortze bideak jarriko liratekeela.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA Y JUSTICIA Y POLITICA TERRITORIAL Y TRANSPORTES

827

DECRETO 80/1986, de 11 de Marzo, sobre Constitución, Funcionamiento y Organización de «Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola-Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos».

La importancia de la ordenación del territorio y la ordenación urbana en el seno de la sociedad vasca, es, desde hace tiempo, una realidad fuera de toda duda sobre lo que es ocioso insistir. La mejora del medio ambiente tanto urbano como rural de Euskadi, es objetivo primordial unánimemente asumido por todos los ciudadanos. Este hecho, por sí solo, sería suficiente para imponer a los poderes públicos la obligación de adoptar las medidas precisas para profundizar científicamente en esta materia, y preparar el número suficiente de profesionales con los conocimientos adecuados, que permitan dinamizar y conseguir los objetivos de mejora de la calidad ambiental que se observa en todos los escalones de la Administración de la Comunidad Autónoma.

Horietaz gainera, aurrekoek hainbateko garrantzia duten hainbat zirkunstantzia ematen dira, adibidez, urbanismo ekintzetarako tekniken aurrerapen bizkorra eta horiek duten interdisziplinartasuna, hots, Zuzenbidea, Arkitektura, Injenerutza, Soziologia, Ekologia eta abar. Aipatutako disziplina horiek bata bestearekin korapilatuta ematen dira administrazio lanean eta koordinatuz eta egoki baloratuz egin behar da hori, hiritar bakoitzaren eta guztien bizitza eta harremanak garatzen direneko habitata eta medio fisikoa eratze eta hobetze helburu orokorra lortu ahal izateko.

Gaureguneko beharrekin ados datorren hiri ordenakuntzarako Instrumentuz hornitzeko Udalek duten nahiak eta, aldi berean, Udal guztiek beren planeamenduak birraztertu eta arau berriei egokitu beharra ezartzen duen Lur eta Hiri Antolaketari buruzko 1975.eko Maiatzaren 2ko Legeak ezartzen dituen aginduek, egiteko horiek burutzeko behar hainbateko gaitasuna duten profesionalen behar handia ekarri dute, bestalde, gure Herriak kopuru hori ez duela pasatako urteetan arlo horretarako lan-eskaintzak urriak izan bait ziren. Bestalde, hiri egitasmoak idazteko eta horiek gauzatzeko eguneroko gestioa eramateko Udalek duten teknikari espezializatuen beharra argi eta garbi nabaritzen da, hiri egitasmo horiek lehen aipatutako bizimodu kalitatea hobetze helburuak lortzeko bide bakarra direla.

Ildo honetan, azken urte hauetako esperientzia ikusita eta arlo honekin modu batera edo bestera lotuta dauden profesionalen nahi bizia bereganatuz, Eusko Jaurlaritzak komenigarritzat jo du lurralde hiri antolaketari buruzko irakaskuntzak, bai zientzia mailan eta bai dibulgazio mailan ere, bereziki emango dituen Eskola sortzea eta, horretarako, Autonomia Elkartearen 1986.eko Aurrekontu Nagusietako prebisioetan sartu du.

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola-Eskuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos» izeneko Eskola hau, izenaren gai diren arloekin lotura duten Administrazio Publikoko profesionalentzako batipat baldin bada ere, gai horietarako zaletasuna duten gainontzeko profesionalentzako ere zabalik ditu ateak.

Eskolaren sortarazketa beharra aztertu ondoren, beharrezko da Eusko Jaurlaritzaren antolaera-egiturapean korrektoki kokatzea eta, horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari atxiki behar zaiola garbi dagoela, funtzionari publikoen heziketarako bait da. Baita ere, egia da, arloa kontutan hartuz, Lurralde Antolketan agintea duen Eusko Jaurlaritzako Sailak gauzatu behar duela artezko indar-ematea, eta, horregatik, HAEE-ri atxikitzen zaionaren kaltetan gabe, aipatutako zirkunstantzia hori gobernu organoetan argi eta garbi azaldu eta onartzen dela.

Horiek horrela, Lehendakaritza eta Justizia Sailburuaren eta Lurralde Antolaketa eta Garraio Sailburuaren proposamenez eta Jaurtze Kontseiluak mila bederatzirehun eta larogeita seigarreneko Martxoaren 11an egindako batzarrean aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

1. Artikulua.— «Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola-Eskuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos» delakoa sortzen da, Herri Arduralaritzaren

A todo ello se añaden diversas circunstancias no menos determinantes, como son la rápida evolución de las técnicas de acción urbanística y su complejo carácter multidisciplinar: Derecho, Arquitectura, Ingeniería, Sociología, Ecología, etc. Las disciplinas citadas se entremezclan en la práctica administrativa y ello debe hacerse de forma coordinada y justamente valorada en orden a conseguir el objetivo global de ordenar y mejorar el habitat, el medio físico, donde se desarrolla la vida y las relaciones sociales de todos y cada uno de los ciudadanos.

La voluntad de los Municipios de dotarse de Instrumentos de ordenación urbana acordes con las necesidades actuales y a su vez el mandato imperativo de la Ley sobre Régimen de Suelo y Ordenación Urbana de 2 de Mayo de 1975, que establece que todos los Municipios deben proceder a la revisión y adaptación de su planeamiento a las nuevas determinaciones de la misma, ha originado la necesidad de un elevado número de profesionales con preparación suficiente para afrontar tal tarea, número del que no está dotado nuestro País, por efecto de la escasa oferta de trabajo en la materia que caracterizó a las épocas anteriores. Por otro lado aparece con claridad la necesidad que tienen los Municipios de contar con técnicos especializados no sólo en la redacción sino también en la gestión diaria de la ejecución de sus planes urbanísticos, única forma de alcanzar los objetivos de mejora de la calidad de vida anteriormente indicados.

Desde esta perspectiva, el Gobierno Vasco, ante la experiencia de estos últimos años y haciendo suya una aspiración sentida por los profesionales vinculados, en mayor o menor grado al Urbanismo, ha considerado conveniente la creación de una Escuela específicamente destinada a la docencia, -en su doble vertiente de estudio científico y divulgación-, de la ordenación del territorio y del urbanismo, y lo ha incluido para ello entre las previsiones de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma para el ejercicio de 1986.

Esta Escuela, denominada «Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola-Eskuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos», aunque dirigida preferentemente a los profesionales de la Administración Pública ligados a las materias que le dan su nombre, está también abierta a los demás profesionales que sientan interés por ellas.

Una vez indicada la necesidad de creación de la Escuela, es preciso situarla correctamente dentro de la estructura organizativa del Gobierno Vasco y al efecto es evidente que se debe incardinar en el Instituto Vasco de Administración Pública, dado su carácter formativo de los funcionarios públicos. No menos cierto es que su impulso directo por razón de la materia ha de ser realizado por el Departamento del Gobierno Vasco competente en la Ordenación del Territorio y por ello, sin perjuicio de su adscripción al I.V.A.P., en sus órganos de gobierno se manifiesta y reconoce claramente la circunstancia indicada.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Presidencia y Justicia y de Política Territorial y Transportes y, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 11 de Marzo de mil novecientos ochenta y seis,

DISPONGO:

Artículo 1.— Se crea «Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola-Eskuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos», dependiente del Instituto Vasco de Adminis-

Euskal Erakundearen agintaritzapean eta, organikoki, bere Idazkaritza Nagusiari atxikita gelditzen dela.

2. *Artikulu*a.- Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola, Dekreto honek eta Barne Erregimenerako Araudiak araupetuko dute.

3. *Artikulu*a.- Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola honen helburuak, honako hauek izango dira:

a) Lurralde eta hiri planeamendu, horiek gauzatzeko gestio eta urbanizaketa disziplina arloetan espezializatutako postgraduatuak, Euskal Administrazio Publikoaren eremu barruan, hezitzea eta birgaitzea eta, orohar, arlo honekin lotura duten profesionalak ere bai.

b) Lurralde eta hiri planeamenduaren formulaketak, tratamenduak eta gauzatzeko gestioak hobetzea, xedetat duten ezagupen, metodo eta teknikak hedatzea.

c) Lurralde eta hiri antolamendu lanarekin zerikusia duten Erakunde lokal eta gainontzeko Erakunde publikoetako langileen etengabeko heziketa helburutzat izango duten profesional espezializatuen birgaitzearako programak lantzea eta burutzea.

d) Lurralde eta hiri antolaketarako interes nabarmena izan dezaten arloei buruzko irakaskuntza espezializatu ematea eta horiei buruzko ikerketak egitea.

e) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak edo Lurralde Antolaketa eta Carrario Sailburuak ezar diezazkioten langileen heziketarako eta lurralde hiri antolaketarako ezagupenak gehitzeko edozein eratako ihardun.

4. *Artikulu*a.- Helburu hauek bete ahal izateko, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak honako aginte hauek izango ditu:

a) Lurralde eta hiri antolaketa arloari buruzko ikastaldi orokorrak antolatzea eta ematea, Arkitektura, Zuzenbide, Soziologia, Ekonomia, Injeniaritza, Ekologia eta planeamenduarekin lotura duten gainontzeko disziplinen arloaren barruan.

b) Aurreko puntuan zehaztutako arloei buruzko arlo berezietako ikastaldi monografikoak antolatzea eta ematea.

c) Planeamenduarekin zerikusia duten gai monografikoei buruzko simposium, mintegi eta hitzaldiak antolatzea.

d) Planeamenduarekin lotura duten gai monografikoetarako beketarako deiak egitea eta ematea.

e) Interes publiko, zientifiko edo beste erazoiaren batengatik komenigarritzat jotako planeamenduari buruzko lan eta ikerketak argitaratzea eta hedatzea.

f) Aurreko artikuluan aipatutako helburuekin lotura duten ezagupenen indarketa eta hedaketarako edozein eratako ihardunak gauzatzeko.

5. *Artikulu*a.- Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, bere ekintzen funtzionamendurako, honako baliabide hauek izango ditu:

1) Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Aurrekontu Nagusietan izendatutako maileguak.

2) Instituzio, Gorporazio eta Erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzak eta aportazioak.

3) Indarrean dauden legeek ezar dezaketenen araber, eman dakiokkeen edozein eratako baliabide.

6. *Artikulu*a.- Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola, honako organo hauen pean egongo da:

tración Pública y adscrita orgánicamente a su Secretario General.

Artículo 2.- La Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos se regirá por el presente Decreto y por su Reglamento de Régimen Interior.

Artículo 3.- Son objetivos de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos:

a) Formar y perfeccionar a los postgraduados especializados en las áreas del planeamiento territorial y urbano, gestión de su ejecución, y disciplina urbanística, dentro de la Administración Pública Vasca y en general a los profesionales vinculados con estas materias.

b) Difundir los conocimientos, métodos y técnicas dirigidas a mejorar la formulación, tramitación y gestión de la ejecución del planeamiento territorial y urbano.

c) Elaborar y ejecutar programas de perfeccionamiento profesional especializado, dirigido a la formación permanente del personal de las Entidades locales y demás Entidades públicas relacionadas con la ordenación del territorio y la ordenación urbana.

d) Impartir enseñanza especializada y la investigación de aquellos aspectos que tengan relevante interés para la ordenación del territorio y la ordenación urbana.

e) Cualquier otra actividad formativa de personal y de fomento del conocimiento sobre planeamiento territorial y urbano que le encomiende el Instituto de Administración Pública Vasca o el Consejero de Política Territorial y Transportes.

Artículo 4.- Para el cumplimiento de estos objetivos, la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos tendrá facultad para:

a) Organizar e impartir cursos generales sobre materias referentes al planeamiento territorial y urbano, dentro de los campos de Arquitectura, el Derecho, la Sociología, la Economía, la Ingeniería, la Ecología y demás disciplinas relacionadas con el planeamiento.

b) Organizar e impartir cursos monográficos con temarios específicos sobre materias señaladas en el punto anterior.

c) Organizar simposiums, seminarios y conferencias sobre temas monográficos relacionados con el planeamiento.

d) Convocar y conceder becas sobre temas monográficos relacionados con el planeamiento.

e) Publicar y difundir los trabajos y estudios sobre planeamiento que se juzguen convenientes por su interés público, científico o de cualquier otra naturaleza.

f) Realizar cualquier otra actividad de fomento y difusión de los conocimientos relacionados con los objetivos señalados en el artículo anterior.

Artículo 5.- La Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos, para el funcionamiento de sus actividades, contará con los recursos siguientes:

1) Los créditos consignados en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2) Las subvenciones y aportaciones de Instituciones, Corporaciones y Entidades públicas o privadas.

3) Cualquier otro recurso que pudiera atribuirsele de acuerdo con lo que establezca la legislación vigente.

Artículo 6.- La Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos se regirá por los órganos siguientes:

- a) Kontseilu Errektorea.
- b) Aholku Batzordea.
- c) Koordinatzailea.

7. *Artikulua.*– 1. Eskolaren gobernurako goreneko mailako organoa da Kontseilu Errektorea.

2. Kontseilu Errektoreko kideak, honako hauek izango dira:

– Lehendakaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkari Nagusia.

Lehendakariordea: Lurralde eta Hiri Ekintzarako Zuzendaria.

– Bokalak: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari 1.

Lurralde Antolaketa eta Garraio Saileko 2 ordezkari.

– Idazkaria: Eskolako Koordinatzailea.

3. Kontseilu Errektoreko Idazkariak, Kontseilu Errektoreko kide gisa ihardungo du, hitz egiteko eskubidez eta botorik gabe.

8. *Artikulua.*– Kontseilu Errektorearen egiteak, honako hauek izango dira:

a) Sarrera eta gastu, Eskolako errekurtsu eta hornidura eta urteko kontuen garbiketarekiko proposamena Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariari egitea.

b) Eskolako politika orokorra, ikasketa planak eta eman behar diren irakaskuntzen programak lantzea eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariaren onarpena horiek jartzea.

c) Hainbat Erakunde eta gorporazioekin ituneak izenpetzea, horiek aldatzea eta indargabetzea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariari proposatzea.

d) Eskolako Barne Errejimen Araudia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariaren onarpenarako proposatzea.

e) Koordinatzailearen izendapena, irakasleen eta irakaskuntza lanetarako eta Eskolaren dibulgaketarako gainontzeko langileen kontratapena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariari proposatzea.

f) Eskolaren politika orokorraren barruan funtzionamenduarien fruitukortsuna gehitzeko bide izan daitezkeen ihardunei buruzko ebazpenak ematea.

g) Ikasketa Beketarako deialdi publikoak egitea aurrekontuetako prebisioren arabera eta izendapenei ebazpena ematea.

h) Funtzionamendu orokorra eta Eskolako gestioaren ondorioak ezagutzeko, Koordinatzaileak eskain ditzazkion informeen onarpenen bidez.

i) Eskolako urteko Memoria onartzea.

j) Eskolaren funtzionamendurako beharrezko izan daitezkeen egiteko guztiak.

9. *Artikulua.*– 1. Kontseilu Errektorea, lege aginduz, hiruhilabeteka bilduko da gutxienez eta bere Lehendakariak horretarako deia egin dezan guztietan, berez edo hiru kidek, gutxienez, hala eska dezatenean.

2. Kontseilu Errektorerako deia, honen funtzionamendua, eztabaidak eta erabakiak hartzeko errejimena,

- a) El Consejo Rector.
- b) La Comisión Consultiva.
- c) El Coordinador.

Artículo 7.– 1. El Consejo Rector es el supremo órgano de gobierno de la Escuela.

2. La composición del Consejo Rector es la siguiente:

– Presidente: El Secretario General del Instituto Vasco de Administración Pública.

– Vice-presidente: El Director de Acción Territorial y Urbanismo.

– Vocales: 1 Representante del Instituto Vasco de Administración Pública.

2 Representantes del Departamento de Política Territorial y Transportes.

– Secretario: El Coordinador de la Escuela.

3. El Secretario del Consejo Rector actuará como miembro del Consejo Rector con voz y sin voto.

Artículo 8.– Son facultades del Consejo Rector:

a) Formular al Director del Instituto Vasco de Administración Pública propuesta de ingresos y gastos y de recursos y dotaciones de la Escuela, así como la liquidación anual de cuentas.

b) Elaborar y someter a la aprobación del Director del Instituto Vasco de Administración Pública la política general de Escuela, los planes de estudio y los programas de las enseñanzas a impartir.

c) Proponer al Director del Instituto Vasco de Administración Pública, la suscripción de convenios con distintas Entidades o Corporaciones, así como la modificación o rescisión de los mismos.

d) Proponer a la aprobación del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, el Reglamento de Régimen Interior de la Escuela.

e) Proponer al Director del Instituto Vasco de Administración Pública la designación del Coordinador, así como la contratación de profesores y demás personal colaborador en las tareas docentes y de divulgación de la Escuela.

f) Decidir sobre aquellas actividades que, dentro de la política general de la Escuela, contibuyan a una mayor eficacia en el funcionamiento de la misma.

g) Efectuar convocatorias públicas de Becas de estudios de acuerdo con las previsiones presupuestarias y resolver sus adjudicaciones.

h) Conocer el funcionamiento general y los resultados de la gestión de la Escuela, mediante la aprobación de los informes que le presente el Coordinador de la misma.

i) Aprobar la Memoria anual de la Escuela.

j) Cuantas otras funciones sean precisas para el funcionamiento de la Escuela.

Artículo 9.– 1. El Consejo Rector se reunirá preceptivamente al menos una vez cada trimestre y en cuantas ocasiones sea convocado por su Presidente, por propia iniciativa o a petición de un mínimo de tres de sus miembros.

2. La convocatoria, funcionamiento, deliberaciones y régimen de adopción de acuerdos del Consejo Rector, se

Barne Errejimen Araudiak ezartzen duenari atxikiko zaizkio eta, hori ezean, administrazio prozedimenduari buruzko lege nagusiari.

3. Bere ekintzen errejimen juridikoa, Administrazio Prozedimendurako Legeak ezartzen dituen arauetara atxikiko zaie.

10. Artikulua. - 1. Aholku Batzordea, aholkutañako organoa da eta Eskolak Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazio Publikoekin eta Unibertsitatearekin, dituen harremanetarako koorditzailea.

2. Aholku Batzordeko kideak, honako hauek dira:

- Lehendakaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkari Nagusia.

- Lehendakariordea: Lurralde eta Hiri Ekintzetarako Zuzendaria.

- Bokalak: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Ordezkaritza 1.

Lurralde Antolaketa eta Garraio Saileko 3 Ordezkaritza.

Nekazaritza eta Arrantzu Saileko Ordezkaritza 1.

- Idazkaria: Eskolako Koordinatzailea, hitz egiteko eskubidez eta botorik gabe.

3. Ondoren aipatzen diren Instituzio eta Erakundeetara, egokitzat jotzen badute, ordezkaritza izenda ditzatela eskatuko zaie honako honen arabera:

Foru Diputazio bakoitzak, Ordezkaritza 1.

Euskal Udalen Elkarrekin, Ordezkaritza 1.

Euskal Herriko Unibertsitateak, 2 Ordezkaritza.

Euskal Herriko Unibertsitate pribatuak, Ordezkaritza 1.

11. Artikulua. - 1. Aholku Batzordearen aginteak, honako hauek dira:

a) Ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta heziketarako edozein ekintza era daitezkeen, Kontseilu Errektoreari proposatzea.

b) Beken gai izan daitezkeen ikerketa, argitalpen eta gaiak proposatzea, bakoitzaren beharrak hase ahal izateko.

c) Eskolaren ihardunak eta ordezkaritza duten Erakundeak koordinatzea.

2. Aholku Batzordea, lege aginduz, bi aldiz bilduko da gutxienez ikasturtean zehar eta Lehendakariak horretarako deia egin dezan guztietan, berez edo 7 kidek, gutxienez, hala eska dezatenean.

3. Dekreto honetako bederatzigarren artikuluko bigarren eta hirugarren parrafoetan Kontseilu Errektorearentzako ezartzen dena, Aholku Batzordeari ezar dakioke.

12. Artikulua. - 1. Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen edo administraziozko kontratatapena dutenen artetik edo aitortutako esperientzia duten profesionalen artetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza izenda dezan Koordinatzailearen ardura, Kontseilu Errektoreak emandako norabide-aholkuak betetzea eta koordinatzea da.

ajustarán a lo previsto en el Reglamento de Régimen Interno y, en su defecto, en la legislación general sobre procedimiento administrativo.

3. El régimen jurídico de sus actos se regirá conforme a los preceptos contenidos en la Ley de Procedimiento Administrativo.

Artículo 10. - 1. La Comisión Consultiva es el órgano consultivo y coordinador de la Escuela con las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Universidad.

2. La composición de la Comisión Consultiva es la siguiente:

- Presidente: El Secretario General del Instituto Vasco de Administración Pública.

- Vicepresidente: El Director de Acción Territorial y Urbanismo.

- Vocales: 1 Representante del Instituto Vasco de Administración Pública.

3 Representantes del Departamento de Política Territorial y Transportes.

1 Representante del Departamento de Agricultura y Pesca.

- Secretario: El Coordinador de la Escuela, que actuará con voz y sin voto.

3. Se instará a las Instituciones y Entidades indicadas a continuación para que procedan, si lo estiman oportuno, al nombramiento de representantes de acuerdo con lo siguiente:

1 Representante por cada una de las Diputaciones Forales.

1 Representante de la Asociación de Municipios Vascos.

2 Representantes de la Universidad del País Vasco.

1 Representante de la Universidad privada radicada en el País Vasco.

Artículo 11. - 1. Son facultades de la Comisión Consultiva:

a) Proponer al Consejo Rector la realización de cursos, seminarios, conferencias y cualquier otra actividad de formación.

b) Proponer la realización de estudios, publicaciones y temas para la convocatoria de becas, al objeto de satisfacer las necesidades propias.

c) Coordinar las actividades de la Escuela con las de las Entidades representadas.

2. La Comisión Consultiva se reunirá preceptivamente dos veces al menos durante el curso académico y en cuantas ocasiones sea convocada por su Presidente, por propia iniciativa o a petición de al menos 7 de sus miembros.

3. Es de aplicación a la Comisión Consultiva lo establecido para el Consejo Rector en los párrafos segundo y tercero del artículo noveno de este Decreto.

Artículo 12. - 1. El Coordinador designado por el Director del Instituto Vasco de Administración Pública entre los funcionarios o contratados administrativos del Gobierno Vasco, o entre profesionales con reconocida experiencia, es el encargado de ejecutar y coordinar las directrices emanadas del Consejo Rector.

2. Horietaz gainera, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolako Koordinatzailearen egitekoak, honako hauek dira:

a) Sarrera eta gastuekiko, errekurtsio eta hornidurekiko proposamenak Kontseilu Errektoreari egitea.

b) Zerbitzuen gastu propioak erabakitzea baimenaren gai izan diren kredituen zenbatekoen barruan, egoki diren gastuen eta Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolako aurrekontuen gestiorako den edozein eratako operazioen proposamena egitea.

c) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariak sinatu ditzan ituneak betetzen diren ala ez zaintzea.

d) Eskolaren politika orokorraren barruan, horren funtzionamenduaren emankortasun hobea bat lortzeko bide izan daitezkeen ihardunak, Kontseilu Errektoreari proposatzea.

e) Eskolako zerbitzu ezberdinen ekintzak koordinatzea.

f) Funtzionamendu orokorrari eta Eskolaren gestioaren emaitzei buruzko berriak Kontseilu Errektoreari ematea, ahdian-ahdian edo honek eska dezanean.

g) Eskolaren urteko ihardunei buruzko txostena Kontseilu Errektoreari aurkeztea.

h) Ikasketetarako Eskolako beken goi mailako zuzendaritza eramatea.

i) Kontseilu Errektorearen erabakiak gauzatzea.

j) Dekreto hau garatu dezaten erabakiek eta, bereziki, Barne Errejimenerako Araudiak izenda diezazkioten egiteko guztiak eta Eskolako beste organo bati espreski izendatu gabeak.

13. Artikulua.— Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren eta irakaskuntzak emanez horrekin partaide izan dadin irakaslearen arteko harremanak, zerbitzuetarako arrendamendu-itune bidez edo Legeek onartu eta Eskolarentzako komenigarriak izan daitezen edozein eraz baliatuz ezarri ahal izango dira.

14. Artikulua.— Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, ikastaroak gainditu dituzten ikasleei nahikotasun-diplomak emango dizkie eta, gainontzeko ikasleei, asistentzia eta probetxamendu egiaztagiriak.

15. Artikulua.— Lokal, administrazio zerbitzu, idazkari-tza eta liburutegitarako lekuak, Eskolak bereak izan ditzan arte, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Eskolaren funtzionamendurako tegi egokiak izan ditzaten Erakunde edo Instituzioen arteko aldibaterako itune bidez, erabakiko dira.

16. Artikulua.— Kontseilu Errektorearen, Lehendakariaren eta Koordinatzailearen ekintza eta erabakien aurka, gorajotze errekurtsioa sartu ahal izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariaren aurrean.

ALDIBATERAKO ERABAKIA

Kontseilu Errektorea eta Eskolako Koordinatzailea izanda daitezen arte, horiei dagozkien agintepideak Herri Arduralaritzaren Idazkari Nagusiak erabiliko ditu artez.

2. Además, son funciones del Coordinador de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos:

a) Formular al Consejo Rector, propuestas de ingreso y gastos, de recursos y dotaciones.

b) Disponer los gastos propios de los servicios dentro del importe de los créditos autorizados, así como proponer los pagos correspondientes y cualquier otra operación tendente a la gestión del presupuesto de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos.

c) Velar por el cumplimiento de los convenios que se suscriban por el Director del Instituto Vasco de Administración Pública.

d) Proponer al Consejo Rector aquellas actividades que, dentro de la política general de la Escuela, contribuyan a una mayor eficacia en el funcionamiento de la misma.

e) Coordinar la actuación de los distintos servicios de la Escuela.

f) Informar al Consejo Rector, periódicamente o cuando éste lo requiera, sobre el funcionamiento general y los resultados de la gestión de la Escuela.

g) Elevar al Consejo Rector memoria anual de actividades de la Escuela.

h) Llevar la alta dirección de las Becas de estudios de la Escuela.

i) Ejecutar los acuerdos del Consejo Rector.

j) Todas aquellas funciones que le encomiende las disposiciones que desarrollen el presente Decreto, y en especial el Reglamento de Régimen Interior, así como las no atribuidas expresamente a otro órgano de la Escuela.

Artículo 13.— La relación entre la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos y el profesorado que colabore impartiendo las enseñanzas, se establecerá mediante contrato de arrendamiento de servicios, o a través de cualquiera de las formas admitidas en Derecho que resulten de la conveniencia de la Escuela.

Artículo 14.— La Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos concederá diplomas de suficiencia a los alumnos que hayan superado los cursos, así como certificados de asistencia y aprovechamiento para el resto del alumnado.

Artículo 15.— Los locales y servicios de administración, secretaría y biblioteca, se determinarán mediante convenios temporales entre el Instituto Vasco de Administración Pública y aquellos Entes o Instituciones que reúnan condiciones idóneas para el adecuado funcionamiento de la Escuela, en tanto en cuanto no cuente con locales propios.

Artículo 16.— Contra los actos y acuerdos del Consejo Rector, del Presidente y del Coordinador, se podrá recurrir en alzada ante el Director del Instituto Vasco de Administración Pública.

DISPOSICION TRANSITORIA

En tanto no se constituyan el Consejo Rector y se nombre el Coordinador de la Escuela, sus facultades se ejercerán directamente por el Secretario General del Instituto Vasco de Administración Pública.

AZKEN ERABAKIAK

Lehenengoa.— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde Zuzendariak, Kontseilu Errektorearen proposamenaz, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolako barne errejimenerako araudia eratuko du.

Bigarrena.— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde Zuzendariak, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolari, artez, adskribatu ahal izango dizkio Eskolaren funtzionamendu egokirako beharrezko jotako langile eta materiale hornidurak.

Hirugarrena.— Euskadiko Autonomia Elkarteko Aurrekontu Nagusietako 11 Sekzioak hartu eta Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolari dagozkion maileguak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde Autonomoaren Aurrekontuei atxikitze beharrezko diren aurrekontu operazioak egingo ditu Ekonomia eta Hazienda Sailak, gastu zentru berri bat sortuz eta horretarako beharrezko diren gainontzeko habilitazioak eginez.

Laugarrena.— Dekreto hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean, jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1986.eko Martxoak 11.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza eta Zuzentza Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

Lurralde Antolaketa
eta Garraio Sailburua,

JOSE RAMON ESTOMBA GOIKOETXEA.

HERRIZAINGO-SAILA

828

Herrizaingo-Sailaren 1986.eko Martxoaren 18ko AGINDUA, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren Bidezaingorako Ertzain-Aldako Berezitik lantoki batzuk kenduz.

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren Berarizko Ertzain-Adalkoaren zerbitzuak bere ihardutze-egiturari egokitu-beharrak, lanariak berriz antolatzeari eskatzen du. Guzti horren ondorioz, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

Atal bakarra.— Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren Bidezaingorako Ertzain-Aldako Bereziaren lanarien ihardutze-erroldetik, honen Aginduaren eraskinean adierazten diren lantokiak kentzea.

Azken erabakia.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1986.eko Martxoak 18

Herrizaingo-Sailburua,

LUIS MARIA RETOLAZA IBARGUENGOITIA.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— El Director del Instituto Vasco de Administración Pública a propuesta del Consejo Rector, dictará el reglamento de régimen interior de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos.

Segunda.— El Director del Instituto Vasco de Administración Pública podrá adscribir directamente a la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos, los medios personales y materiales del Instituto que estime necesarios para el buen funcionamiento de aquella.

Tercera.— Por el Departamento de Economía y Hacienda se realizarán las operaciones presupuestarias necesarias para adscribir los créditos contenidos en la Sección 11 de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi correspondientes a la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos al Presupuesto del Organismo Autónomo Instituto Vasco de Administración Pública, mediante la creación de un nuevo centro de gasto y las demás habilitaciones precisas al efecto.

Cuarta.— El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de Marzo de 1986.

El Presidente,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia y Justicia,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

El Consejero de Política Territorial
y Transportes,

JOSE RAMON ESTOMBA GOIKOETXEA.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

828

ORDEN de 18 de Marzo de 1986, del Departamento de Interior por la que se suprimen destinos en la Unidad Especial de Tráfico del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La precisa adecuación de los servicios de la Unidad especial de Tráfico del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco a su estructura funcional hace precisa una reordenación del personal. Por todo ello

DISPONGO:

Artículo único.— Suprimir en la plantilla orgánica de la Unidad Especial de Tráfico del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco los destinos que se señalan en el anexo adjunto.

Disposición final.— La presente disposición entrará en vigor en el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 1986.

El Consejero de Interior,

LUIS MARIA RETOLAZA IBARGUENGOITIA.